

EUSKALTZAINDIAREN ESKU-ERAKUTSIA AITA SAINDUARI

1975ko udan, urte sainduko erromeria eginez, euskaltzainburua bere Ordenako beste fraide batzuekin Erromara zihoala jakinik, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak *Euskeraren* aldizkariaren zenbaki batzuk, kutxatila polit batean ezarriak, eman zizkion Aita Sainduari eskeintzeko.

Euskeraren zenbakietan hitz hauk idatzi ziren:

Munusculum quod
Academia Vasconicae Linguae
Ssmo. Patri Paulo VI
grato animo dicat
Euskaltzaindiak bihotz-bihotzez
Aita Saindu Paulo VI. ari
eskeintzen dioen
esku-erakutsia
Donostian, Uztailak 3, 1975

Uztailaren 16an, plaza agirian egin zen audientzian eman zen esku-erakutsi hori.

Hilabete bat geroago bi eskutitz hauk jaso ziren Euskaltzaindian:

"El Obispo de Bilbao.—Bilbao, a 25 de agosto de 1975.—Rvdo. P. Luis Villasante, O. F. M.— Academia de la Lengua Vasca.—Bilbao.—Muy estimado en el Señor:—Tengo mucho gusto en enviarle fotocopia de la carta que a su vez me remite el Sr. Nuncio de Su Santidad en España.—Me alegra mucho este testimonio de la Santa Sede que, sin duda, será para Vd. un estímulo más en su loable labor en favor del euskera.—Me congratulo con Su Santidad y con el Señor Nuncio de la expresión de sus filiales sentimientos para con la Santa Sede.—Con todo afecto le saluda y bendice. Antonio Añoveros."

"Nunciatura Apostólica en España N. 10290/75. Madrid, 17 de agosto de 1975.—Excelencia Reverendísima: El Rvdo. P. Luis Villasante O. F. M., Rector de la Academia de Lengua Vasca, la cual tiene su sede central en Bilbao-5 (c/ Ribera 6), ha presentado como homenaje al Padre Santo cuatro volúmenes con el título "Euskeraren", que presentan los trabajos de la

citada Academia en el año 1971 hasta el 1974.—Junto con estos volúmenes escribió una carta en la que expresa profundos sentimientos de afecto y devoción filial hacia Su Santidad, así como una fervorosa adhesión a los fines del presente año jubilar.—Por todo ruego a Vuestra Excelencia, de no haber dificultad en contrario por su parte, que haga llegar en la forma y el modo que más oportuno le parezca, al R. P. Villasante, el agradecimiento del Santo Padre por su obsequio y delicados sentimientos, haciendo sinceros votos por su trabajo y actividades culturales, comunicándole juntamente la paternal Bendición Apostólica, prenda de la asistencia divina para él y sus colaboradores.—De Vuestra Excelencia Reverendísima afectísimo en el Señor. Luigi Dadaglio N. A..—Excmo. y Rvdmo. Señor Don Antonio Añoveros Obispo de Bilbao.”

KARMELO ETXEGARAIREN MENDE ERDIA (1925-1975)

EUSKALTZAINBURUAREN HITZAK

Jaun-andreak, agur!

Karmelo Etxegarai jaunaren izenak eta itzalak biltzen gaitu gaur hemen. Berrogei eta hamar urte betetzen dira aurten hura hil zenetik. Berrogei eta hamar urte, eta zer urteak! Zer aldaketak eta gora-beherak ezagutu dituen bitartean gure herriak! Bai. Etxegarairen izena urrutitxo gelditzen hasia zai-gu. Eta halarik ere gutxik bezala eskeini dio D. Karmelok bere bizia eta bere lan guztia gure herriari. Hargatik zin ahaztuzko da guretzat. Langile fina, umila, isila, etengabekoa, nekaezina, gizon prestu zuzena, kristau fede handikoa.

Euskera bai olerkiz eta bai hitz lauz ere landu zuen. Euskal literaturaren kondaira-azterketa zehatz eta baliotsuak egin zituen.

Askotan argitaratze berri bat egiten denean edo autore gazte batek bere lehen frutuaz kalera irteteko ausartzia hartzen duenean, halakoarentzat ez da laguntza makala iza-ten lehendik fama duen jaun batek hitzaurrea egiten badio.